

Osteaguna, 2013-03-07
Osteaguna, 2013-03-07

ZUREA DA HITZA

Navigation 

Sagardotegietako ateak zabaldu dituzte San Sebastian atarian

by Tolosaldeko Eta Leitzaldeko Hitza on 2013/01/17 in

Astigarragan atzo eman zioten hasiera ofiziala sagardotegien denboraldiari. Garai batean, ordea, irekiera San Sebastian Egunak markatzen zuen. Egun, Tolosaldeko bederatzi sagardotegiek euren egutegi propioa dute, eta gehienek, urtarilaren etorrerarekin batera zabaldu zituzten txiriak, hilaren 5aren eta 12aren inguruan. Denboraldi berriarekin sagardozealea erakartzeko ahaleginak iristen dira, eta Adunako bi sagardotegien eskaintza berezia hor kokatu behar da: bisita gidatuak. Sagardoaren tradizioa esplikatzen dagoen sagardogileak mila galdera erantzun ohi ditu, jakin mina asetzea bere ogibidearen beste arduretako bat baita. Hala eta guztiz ere, antolatutako ahalegin berezia azpimarratu egin behar da; Aburuzaren kasuan, bisitak sagastietan hasten dira, sagarra nondik eta nola biltzen duten gertutik gertura erakutsiaz. Tolosaldea Garatzeneko Turismo Sailak ere, ekimen hau azpimarratu zuen iragan astean, beste sagardotegiak horrelako egitasmoak martxan jartzera gonbidatuz. Menuari dagokionez, etxe bakoitzak bere berezitasunak izan ohi ditu, baina ardatza, sagardotegiko menua deiturikoa da. Eskualdeko sagardotegien inguruko informazio zabala, historia barne, www.tolosaldea.net edo www.sagardotegiak.com helbideetan dago.

Tolosaldeko sagardotegiak

↓ Tolosaldeko sagardotegiak



Zalbide Sagardotegia

Abeltzisketa

- **Denboraldia.** Urtarrilak 11tik abendu 31era bitarte.
- **Astea.** Afariak egunero zerbitzatzen dituzte, eta bazkariak: ostegun, ostiral, larunbat eta igandetan.
- **Telefonoa.** 943 65 21 76.
- **E-maila.** crg61@hotmail.es
- **Jangela.** 100 lagun ingururen tzako lekua.



Aburuza Sagardotegia

Aduna

- **Denboraldia.** Urtarrilak 11tik abendu 31era bitarte.
- **Astea.** Asteartetik ostiralerara afariak; larunbatean, egun guztian irekita, eta igandean eta astelehenean itxita.
- **Telefonoa.** 943 69 24 52.
- **E-maila.** aburuza@sidadrasa-aburuza.net
- **Jangela.** 200 lagun inguru.



Zabala Sagardotegia

Aduna

- **Denboraldia.** Urtarrilak 3tik maiatzaren 12ra bitarte.
- **Astea.** Astelehenean igandera arte, hau da, egunero, afariak zerbitzatzen dituzte. Ostiralean, larunbatean eta igandean, bazkariak, enkargatuz gero.
- **Telefonoa.** 943 69 07 74.
- **E-maila.** info@izabala.com
- **Jangela.** 120 lagun inguru.



Sarasola Sagardotegia

Asteasu

- **Denboraldia.** Urtarrilak 12an zabaldu zuten.
- **Astea.** Astelehenean igandera bitarte afariak, eta larunbatean eta igandetan bazkariak ere bai. Beste egunetan enkargatzeko aukera dago.
- **Telefonoa.** 943 69 02 83 edo 639 77 84 20.
- **Jangela.** 160 lagun inguru.



Begiristain Sagardotegia

Ivaztegieta

- **Denboraldia.** Urtarrilak 5etik ekainaren 24ra bitarte, hau da, San Juan Eguna bitarte egongo da zabalik.
- **Astea.** Asteartetik larunbatera bitarte, afariak; larunbatetan eta igandetan bazkariak.
- **Telefonoa.** 943 65 28 37.
- **E-maila.** begiristainsagardotegia@gmail.com
- **Jangela.** 150 lagun inguru.



Goikoetxea Sagardotegia

Lizarza

- **Denboraldia.** Urtarrilaren 25ean, ostiralean, zabalduko ditu ateak.
- **Astea.** Astelehenean larunbatera bitarte afariak zerbitzatuko dituzte, enkargatuta. Bazkariak larunbat eta igandean, hauek ere, enkargatuta.
- **Telefonoa.** 609 71 42 03 edo 943 68 21 75.
- **Jangela.** 120 lagun inguru.



Eguzkitza Sagardotegia

Tolosa

- **Denboraldia.** Urtarrilaren 5etik ekainera bitarte.
- **Astea.** Astelehena itxita; asteartetik larunbatera afariak, eta ostiralean, larunbatetan, igandetan eta jai egunetan bazkariak.
- **Telefonoa.** 943 67 26 13.
- **E-maila.** eguzkitzasagardotegia@gmail.com
- **Jangela.** 120 lagun inguru.



Isastegi Sagardotegia

Tolosa

- **Denboraldia.** Urtarrilaren 12tik apirilaren 27ra arte zabalik egongo da.
- **Astea.** Astelehenean ostiralerara afariak. Larunbatetan, bazkariak eta afariak zerbitzatuko dituzte. Igandeak itxita.
- **Telefonoa.** 943 65 29 64.
- **E-maila.** isastegi@isastegi.com
- **Jangela.** 170 lagun ingururen tzako lekua.



Usabal Sagardotegia

Tolosa

- **Denboraldia.** Urte guztian irekita egoten da.
- **Astea.** Astelehenean igandera arte irekita egoten da; astelehene eta astearte gauetan itxita.
- **Telefonoa.** 943 67 43 16.
- **E-maila.** info@tolosachuleta.com
- **Jangela.** 250 lagun inguru.

Zuhaitzetik kupelera

Tolosako Isastegi Sagardotegiari esker, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak sagardoa nola egiten den ikusteko aukera izan zuen iragan azaroan. Etxeko eta eskualdeko ekoizleen sagarrak bildu ostean, sagardoaren ibilbidea azaldu zion eskualdeko egunkariari Migel Mari Lasak, pausoz pauso eta pazientzia handiarekin. Sagardoa, zuhaitzetik kupelera bideo laburra www.tolosaldea.hitza.info webgunean dago zintzilaturik.

<http://youtu.be/BVnZD5bWnGo>

◀ Ziribulio Sound Systemen musika entzun ahalko da Orbelan

Urteari gailurretatik begira ➤

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email

Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It



Bilatu zure inguruko sagardotegia

Bilatu



IRATXE ALBIZU FISIOTERAPEUTA

23,00 €

deskontua

%39

[Eskaintza ikusi](#)

INKESTA

Zer iruditzen zaizu ekainean berriro inauteriak ospatzeko lagun talde batek egindako proposamena?

- ☐ Ondo iruditzen zait
- ☐ Gaizki iruditzen zait
- ☐ Berdin zait

[Vote](#)

LABURRAK

Kotxe karabana manifestaziora deituz

‘Emakumea, osasuna eta murrizketak’ hitzaldia, gaur


Asteburuko kirol emaitzak

Caja Laboral Baskonia- Fenerbahçe Ülker ikustera

Sendian programako ikastaroak

[Albiste guztiak irakurri](#)

INAUTERIAK 2013-KO ALBISTEAK



INAUTERIAK 2013 ALDIZKARIA



INAUTERIETAKO KANTU LIBURUXKA



BIDEOAK



Pirritx eta Patakon Laskorain Ikastolan



Prentsaurrekoa



Gurpildun Aulkien Pilota Txapelketa

EURITEA TOLOSALDEAN



RECENT VIDEOS

BILATU



HERRIAK

[Abaltzisketa](#) | [Aduna](#) | [Albiztur](#) | [Alegia](#) | [Alkiza](#) | [Altzo](#) | [Amasa-Villabona](#) | [Amezket](#) | [Anoeta](#) | [Areso](#) | [Asteasu](#) | [Baliarrain](#) | [Belauntza](#) | [Berastegi](#) | [Berrobi](#) | [Bidegoian](#) | [Elduain](#) | [Gaztelu](#) | [Hernialde](#) | [Ibarra](#) | [Ikaztegieta](#) | [Irura](#) | [Larra](#) | [Larraul](#) | [Leaburu-Txarama](#) | [Leitza](#) | [Lizartza](#) | [Orendain](#) | [Orexa](#) | [Tolosa](#) | [Villabona](#) | [Zizukril](#) | [Zizurkil](#) | [Zizurkil. Tolosa](#) |

POPULAR

COMMENTS

- Peroten "benetako sakeoa" eman dela salatu dute
2013/02/28

- Otaegi eta Otaño, berriro txapeldun
2013/03/04

- Tolosako udal musika eskolako 20 pianista izan dira Andoaingo VIII. Piano Jaialdian
2013/03/04

14°C

Gaur **15°C** **8°C**

Bihar **14°C** **6°C**

Larunbata **12°C** **6°C**

© Tutiempo.net

Más »

ZORION AGURRAK



Urte askoan!

Laiene Iturbe Usabiaga (Irura). Atzo 2 urte! Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.

[irakurri gehiago »](#)

Guztiak irakurri

ESKELAK

Joxe Agirrezabala Arruabarrena

Guztiak irakurri

BERRIKETAN.INFO [RSS]



[Lara Madinabeitia](#)

posted an update

[22 minutes ago](#)

Chavezen heriotzari buruzko mahai-inguruaren laburpena egin du BERRIA TBk.



[Amaia Portugal](#)

posted an update

[45 minutes ago](#)

"Inork ez du edari energetikoen kaloria ekarpena aipatzen, eta bonba hutsa da". Jose Manuel Lopez Nicolas biokimikariari eta zientzia dibulgatzaileari elkarrizketa gaurko Berrian

[http://paperekoa.berria.info/plaza/2013-03-](http://paperekoa.berria.info/plaza/2013-03-07/046/001/inork_ez_du_edari_energetikoen_kaloria_ekarpena_aipatzen_eta_bonba_hutsa_da.ht)

[07/046/001/inork_ez_du_edari_energetikoen_kaloria_ekarpena_aipatzen_eta_bonba_hutsa_da.ht](http://paperekoa.berria.info/plaza/2013-03-07/046/001/inork_ez_du_edari_energetikoen_kaloria_ekarpena_aipatzen_eta_bonba_hutsa_da.ht)



[Iker Aranburu](#)

posted an update

1 hour, 4 minutes ago

Italiako hauteskunderen emaitzak merkatuetan sortutako ekaitz txikiak atertu du, oraingoz behintzat. Espainiak 5.000 milioi euro lortu ditu gaur goizean merkatuetan, aurreko enkanteetan baino prezio merkeagoan. Bereziki esanguratsua da hamar urteko bonoaren truke %5 baino gutxiago pagatu duela, lehen aldiz 2010az geroztik. Urte hasieratik 35.499...

Asier Mirón

posted a
tweet

:

2 hours, 16 minutes ago

RT @teketen Irlen sarea: 'Hacker' etika eta estetika <http://t.co/fa0ZRpJrOH> #berriketan

Juan Luis Zabala

posted an update

2 hours, 31 minutes ago

Gipuzkoako Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko buru izendatu dute Juan Bautista Mendizabal <http://urolakosta.hitza.info/2013/03/07/gipuzkoako-euskalerriaren-adiskideen-elkarteko-buru-izendatu-dute-juan-bautista-mendizabal/>

PAPEREOA 2013-03-06

- Udalek salatu dute Espainiako bandera «indarrez» jarriarazi nahi dietela
- Tolosaldeko bost herritan hondakinak atez ate biltzen hasiko dira uda baino lehen
- Martxoak 8: Emakumearen Eguna dela eta, ekitaldi ugari
- Pariseko epaitegiak Azkarateren helegitea atzera botako du

2012KO URTEKARIA

- ‘La



doctrina del Shock' dokumentala, bihar,
Tolosan

- Udaberriko denboraldia prest du Alegiako gaztetxeak



KIROLA

Afizionatu mailako txirrindularitzarik onena izango da asteburuan

Mendiari eskainitako zinerik onena, Tolosako Leidor aretoan ikusgai

Ruben Saralegi: «Urduritasunak ez dio niri bezainbeste eragingo berari»

Gurpildun Aulkien Gipuzkoako Pilota Txapelketa prestatzen ari dira

KULTURA

Korrikaren alde, Loatzok emanaldia eskainiko du

Tolosako udal musika eskolako 20 pianista izan dira Andoaingo VIII. Piano Jaialdian

Hezkuntza parekidearen balioa eta beharra aldarrikatu dute

Parot doktrinaren aurkako mozioa onartu dute Tolosan

AISIA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Kilometroekin elkarlanean ospatuko dute 25. urteurrena

Mendiari eskainitako zinerik onena, Tolosako Leidor aretoan ikusgai

Eskola txikiek Usabalen dute hurrengo zita

Igandera bitarte, hasi da 600 'encounterzale'ren gozamena

GIZARTEA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Kilometroekin elkarlanean ospatuko dute 25. urteurrena

Mendiari eskainitako zinerik onena, Tolosako Leidor aretoan ikusgai

Tolosaldeko milaka lagunek euskara elkarri emango diote hilaren 14an

Tolosako Udaleko bulegoak itxita izango dira ostiralean

EKONOMIA

Huyck Wangner lantegiko langileek greban jarraitzen dute

Huyck Wangner enpresak «erregulazio prozesu» berri bat abiatzeko asmoa du

Gatazkan dauden langileei babesa azaldu eta manifestaziora deitu dute

Leitzako ezker abertzaleak enpleguaren aldeko Iruñeko manifestaziora joatea eskatu du

POLITIKA

Kotxe karabana manifestaziora deituz

Espainiako bandera jartzera "indarrez behartu" nahi dituztela salatu dute Tolosaldeko udalek

Parisek atzera botako du Manu Azkarate tolosarraren helegitea

PSE-EEK Jaime Otamendi baztertu du EITBko zuzendari izateko

© Tolosa Herria Hedabideak, S.M.
Araba Etorbidea 5, atzea, 20400 - TOLOSA - Tel.: 943 655 695 - Faxe 943 650 018 - E-posta:
tolosaldean@hitza.info

